

GU ERE ARTISTA

AZKEN EKOIZPENA

Sekuentzia honen azken xedea, talde txikietan elkarturik artelan bat egitea da, horretarako beharrezko diren ezagutzak unitatean zehar eskainiko dizkiegu. Behin proiektuak gauzatuta, artelanen erakusketa prestatuko dugu, horretarako ikastetxean edo herrian areto egoki bat bilatuko dugu, gonbidapenak prestatu, kartelak jarri...

BERRIKETAN

Umeek artearekin duten harremanari buruz hitz egingo dugu ikasgelan, guk nahi dugun hari mutur bati tiraka egin dezakegu edo testu liburuan azaltzen diren egoerei kasu eginez, nahi den bezala.

ARTEA HISTORIAN

Gizakiak historian zehar egin dituen artelanak aztertuko ditugu testu honen bitartez eta lan horiek non aurki ditzakegun jakitea izango da helburuetako bat. Hau egin ostean, artearekiko duten jarrera ikusiko dugu eta honekin batera artelanak egitera animatuko ditugu.

ESKULTURAK

Ariketa honetan, Durangon dauden artelanak azalduko dizkiegu haurrei, ea baten bat ezagutzen duten galdetu, hauen gainean hitz egin eta azkenik, azaltzen diren pistak kontuan hartuta horietako zein den zaharrena asmatu beharko dute.

ESKULTURAK

Atal honetan, Durangoko bi eskulturari buruzko informazioa jasoko dugu eta honen ostean, kolore hotz eta beroak zer diren ulertzeko ariketa edo artelan bat egingo dute. Lan bakoitzean kolore mota bat erabiliko dute Mikeldiko idoloa marrazteko, honen ondoren taldean handian komentatuko ditugu bataren eta bestearen arteko desberdintasunak.

MARI ETA KONPAINIA (komikia) eta ZER DAKIT?

Komikia irakurriko dugu eta bertan agertzen den informazioa aztertuko dugu talde handian, kasu honetan Kuruztiagako gurutzeari buruz arituko gara hizketan, artelan hau Durangon egindakoa da eta egokia litzateke honi buruz baten batek zerbait jakinez gero honen inguruan hitz egiteko tartetxo bat hartu eta tertulia bat egitea, horretarako *berbetan* atalean azaltzen zaigun informazioaz baliatu gaitezke eta baita *Heresiaren mugak* atalaz ere.

ZERTARAKO?

Atal honetan egingo duten artelanari buruz pentsatzen hasiko gara, lehenik eta behin taldeka banatu eta artelanak zein funtzio betetzea nahi duten pentsatuko dute, zertarako egingo

duten, berarekin zer transmititu nahi duten... Ariketa honen helburua, artelanak funtzio bat izatea izango da eta hori pentsatzeko behar duten denbora eta gure laguntza eskainiko dizkiegu.

DATU HISTORIKOAK

Hurrengo testu honetan, Kurutziagako gurutzeari buruzko informazio gehiago izango dute, kasu honetan, historian kokatzeko balioko duena, hau nondik datorren, historian zehar gertatutako gorabeherak... Testu honen helburua, artelan baten atzean istoria bat dagoela jakitea izango da.

BAZENEKIEN?

Bitxikeria modura *Astarloa monumento ibiltaria* testua izango dute. Monumentu honek izan dituen leku-aldaketak azalduko dira testuan. Azken finean, monumentu asko urteak aurrera joan ahala lekuz aldatuak izaten dira, horregatik garrantzitsua izango da pentsatzea egingo duten artelana zein txokotan kokatuko duten.

KOKAPENA

Atal honetan, artelan batek leku baten edo bestean kokatzeak duen garrantziaz arituko gara, zergatik kokatu behar den leku baten edo bestean, jendearentzat ikusgai egon behar den edo museo batean gordea... Eztabaida honek luze jo dezake baina beraien artelanaren kokapena pentsatzea garrantzitsua litzateke.

NORK? NOIZ? ZER?

Victor Arrizabalaga, Durangorekin harreman estua duen eskultorearen biografian sakonduko dugu atal honetan. Bere artelan bat ere badago kokatua Durangon, *besarkada* deiturikoa, liburuan bertan ikusi daitekeen bezala. Victorren artelan ezberdinei buruz aritzeaz gain, artelanak izan behar duten materialaz ariko gara. Beraz, ariketa honen helburua ikasleek erabiliko duten materiala erabakitzea izango da.

AZKEN EKOIZPENA

Victor Arrizabalagak puzzlearekin egin legez, ikasleek ere euren inguruan ohikoa den elementu bat hartu eta harekin jolas egitea da proposamena. Horretarako, objektu bat aukeratu, neurria aldatu (handituz edo txikituz, objektuaren arabera), eman bestelako kolore bat eta pentsatu ondo non kokatu.

AHOLKUAK

Artelana egiterakoan jarraitu beharreko aholku batzuk azaltzen dira atal honetan, ikasleei baligarriak suerta dakizkio hauek erabiltzea, materiala, kokapena, kolorea... garrantzitsuak baitira artelan batean.

ZER IKASI DUT?

Atal denetan azaltzen dira ebaluazio galdera hauek. Ebaluazioa atal ezberdinetan banatuta dago. Alde batetik, beraiek ikasitakoa azaltzen da. Bestetik, taldean edo taldekideengandik ikasitakoa eta azkenik, materiala edo unitatearen ebaluazioa. Ahoz zein idatziz egin daiteke.